

Kaxildo Alkorta, IVAPeko adiskide eta laguna

MIEL A. ELUSTONDO – ZALDI ERO

Manu Arrasate (Mungia, 1961), Edorta España (Bilbo, 1961) eta Maite Imaz (Tolosa, 1964) dira Kaxildo Alkorta zenaren lankideetarik hiru, Kaxildori lotuak, Kaxildok saretuak. Batak besteari esanez, Marijo Arrieta ere tartean zela, jakin zuten adiskidea joana zela betiko. Edorta oroitzen denez, Kaxildo larri zegoela jakin zuen orduko idatzi zion mezua lagunari, baina Kaxildok gabe, semeak [Ekaitz Alkorta] erantzun zion, semearenean egin baitzuen azken hilabetea adiskide eta lagun genuenak. «Ekaitzek esan zidan aitzak ez zuela hitz egiteko indarrik, baina bihotzez eskerrak ematen zizkidala, guztiagatik. ‘Kaxildo agur esaten ari da’, pentsatu nuen». Eta halaxe joan zen Kaxildo, nahi baino azkarrago.

Joan zen, baina hortxe dago, Getariako hilerrian datza Kaxildo Alkorta Barrena (1943-2021), «Kaxildoneko Kaxildo» Getarian, izen berekoa baitzuen aita.



*«Benetako
jendearen artean
disfrutatzen nuen
nik gehiena»*

Manu Arrasate, Antton Burgoa, Edorta España, Maite Imaz, Asier Madariaga... Hamaika lagun ere bazenituen zuk IVAPen. Getariako hilerrira etorri gaituzu...

Ez alferrik! Urte askoan egin genuen lan elkarrekin IVAPen. Bata bestearen ondoan. Hurbilekoak ginen, gurea ez zen bakarrik laneko harremana. Lan egiten genuen, baina disfrutatu ere bai, bizia gozatu. Zenbat otordu eder eta zenbat irteera. Mendiko txangoak-eta. Batzuetan, lagunarte koxkorrean, eta beste batzuetan, aldiz, pare bat lagun artekoa. Galdetu Asierri [Madariaga], adibidez. Hark gogoan izango ditu Asturiasera, Pirineoetara, Ioarrera edo Moncayora—eta Veruelara—egindako ibilaldiak. Edo, esate baterako, gogoratzen naiz, Gasteizen lan egiten genuenean, ostiraletan

LAGUNA

«Kaxildok, Jesusen Lagundian ibili zen garaian, misiolari izateko aurkeztu zuen bere burua; baina ez dakit zein abade nagusik, gotzainek edo dena delakok ukatu zion baimena, eta nik, lerro hauetatik, eskerrak eman nahiko nizkioke erabaki hura hartu zuenari. Izan ere, baliteke Kaxildok urruneko mundu horretan lan asko egitea (zalantzarik ez dut), baina jakin badakit zenbat eta nola egin duen munduko txoko honetan, eta bereziki euskararen munduan, eta hori guztia eskertzekoa da, benetan. Askok izan baita itzultzaile eta lankide gisa eman duena, baina ez da gutxiago izan lagun moduan eman diguna. Ez horixe!». (Edorta España, *Administrazioa Euskaraz*, 'Izoko diaspora handitzera doa', 2008)

Edorta eta biok elkarrekin joaten ginela etxera Bilboko autobusean. Baina Bilbora heldu gabe, Aretako ordainlekuan jaitzen ginen gu. Handik, Laudiora joaten ginen, oinez. Laudion kafea hartu eta, segidan, Ganekogortako aldapa pikoa igo eta Bilbora! Joango ez ginen, bada! Erregalatzekoa genuen sasoia! Sobra!

Lankide zineten eta, are, adiskide...

Eta adiskidetsuki zuzentzen genituen testuak ere. Alegia, nik inori ezer zuzendu behar nionean ere, ez zitzaidan gustatzen zakar jardutea. Batetik, ez zitzaidalako inori baldar hitz egitea gustatzen, eta, bestetik, lankideak nituenak lagunak nituelako! Adiskideak. Badakit gaur egun Manuk [Arrasate] enpatikoa naizela dioela, hitz horixe jarri da modan, baina hitza gure artean ibiltzen hasi baino lehen ere, lankidearen ikuspegiaz jabetu nahi izaten nuen, neure aurreiritziak bazter utzita. Gehienetan, ondo konpontzen ginen, baina ez beti. Ziur naiz Maitek [Imaz] gogoan izango duela nola berotzen nintzen, jendea denborapasa kafea hartzen ari zela luze iritzita. Batzuetan, neure onetik ateratzen nintzen. Badakizu, giza zirriborro gaituzu, eta inoiz haserraldi gogortxoren bat izan nuen baten batekin. Ni exijentea izaki! Neure haserre eta sesioak baino hobeto gobernatzen nituen besterenak. Bitartekari lana ere egin izan nuen lankideen artean, eta egoera petralak goxatzen ere saiatu izan nintzen. Funtzio hori ere betetzen nuela esaten didate lagunak, eta gure arteko giroan eta taldearen lan egiteko moduan ere igartzen zela. Gaur egun, hotzagoa da giroa, baina nik orduan halaxe jokatzeko nuen.

Esan didatenez, zeure buruarekin zinen zu exijentea, oroz lehen eta oroz gain.

Hori esan al dizute?... Inork baino hobeto ezagutu ninduten horiek. Utzi kontuak ateratzen... Edortaren ondoan hamar urte egin nituen lanean. Manurekin... Manuk eta biok 1986an ezagu-

tu genuen elkar! Gazterik! IVAPen ari ginen, Adriano VI.a kalean, Gasteizen, eta inguruko tabernaren batera joaten ginen bazkaltzera egunero. Han ziren Juan Gartzia-eta! Gero, Manu ETBra joan zen, eta, hurrena, Kultura Sailean eduki zuten. 1997an itzuli IVAPera, eta harrezkero elkarrekin egin genuen lan, ni 2008an jubilatuta arte. Gogoratzen naiz Maitek eta biok Jaurilaritzako sotoan egin genituen dozena erdi urteez. Hark laguntzen zidan ordenagailuan.

Ordenagailuan? Zer esan nahi duzu? Nork bere ordenagailua izango zuen, bada.

Bai, eta ez ziren oraingoak bezain gailu finak! Noiznahi izaten nituen arazoak, hasieran batez ere, eta hantxe izaten nuen Maite, niri laguntzen. Batean, idatzitako testua gailuak gorde zuela, ez zuela gorde. Bestean, nik ustez gordetakoa ez zitzaidalako ageri. «Zer dela-eta azaldu zait hau pantailan, ordea? Non da nik egindako lana?». Eta Maite esan, konpontzen zidan arazoa, baina ordenagailuari ematen zion arrazoiak! Arraioa! Edortak, bestalde, esaten zuen ordenagailuaren kontrako borroka zela nire espezialitatea. Txorakeriaren bat izaten zen beti tartean, zeren di-da batean konpontzen baitzuen nire arazoa. Edortak ere franko lagundu zidan. Manu ni baino gazteago zen, erraz bereganatu zuen teknologia, nahiz eta orain bera ere harrapatu duen teknologia-uholde berriak. Laguntzaile fina nuen. Esan dizut, lankideak nituen, baina, batez ere, adiskideak.

Teknologia aipatu duzunez, diote zeu zarela Excellaren sortzailea. Zer izan zen «izara santua»?

«Izara santua?» Kar, kar... Hori ere kontatu al dizute? Gogoratzen al dira? Tokitan zegoen nire excella. Baina esango dizut zer zen nire kalkulu-orri hura. A4 tamainako orrialdea, gure lana antolatzen laguntzen zidana. Ardatz batean, nork zer itzuli behar zuen ageri zen. Bes-

tean, noizko amaitu behar genuen dena delako itzulpen-lana, datak eta beste. Ahal zen txukunena jarduten nuen nik nire excell partikular hartan, dena eskuz. Baten batek asmatu zuen harentzako izena ere: «Izara santua». Manuk esaten zuen orrialde hura oraingo Excellaren aurrekaria izan zela; alegia, izara santu haren gainean eraiki zela oraingo Excella. Nire izara santu hark bidea egin zuen, zeren Edortak sistema kopiatu baitzidan 1997an, eta harrezkero ez zion sistemari utzi. Edortak gordeta dauzka bere izarak. Izaratxoak, hobeto esan, nireak baino askoz tamaina txikiagokoak baitira.

Zeu arduratzen zinen lana antolatzeaz, kudeatzeaz.

Bai, arduraduna nintzen. Zuzentzaile nintzen, nire kideak bezalaxe, baina horrez gain, koordinatzaile ere banintzen. Arloburua diote orain. Ez harroburua, horratik! Itzulpen Zerbitzu Ofizial IZO-ren lan-karga eramatea zen nire egitekoa. Zerbitziburua batean eta bestean zebilen beti, kudeaketan, bilerarik bilera, eta, hortaz, bezeroarekiko harremana, itzulpenak egin zitezen arduratzea, haiek berrikustea, arazoak konpontzea... nire egitekoen artean zeuden.

Zure egitekoen artean? Lan hori dena zeuk egiten zenuela esan didate, zeu zizela motorra, hortxe zizela beti, lanean eta presente, delikatuki hartzen zenituela zure menpekoak...

Nik zer esango dizut, bada! Kontuan hartu behar da garai hartan IZO txiki-txoa zela, 16 bat langile ginen, talde txikia. Menpekoak delikatuki tratatzen nituela... Hara, esatekorik baldin banuen, goxo, modu onean esan nahi izaten nuen esan behar nuena, ez purrustaka. Haien lanari zuzenketarik egin behar baldin banion, berdin, azalpenik gabe ere erraz ulertzeko moduan egiten saiatzen nintzen. Ez dakit nola asmatzen zuten nire letra txiki hura irakurtzen ere! Edortaren idazkera izan banu, adibidez, ezinezkoa

HUTSUNEA

«Azkena, apirilean hitz egin nuen Kaxildorekin, urteak betetzen zituen egunean, telefonoz. Gainerakoan, nik lanean ikusten dut oraindik Kaxildo, eta lanetik kanpora egiten genituen bazkari eta abarretan... Esate baterako, Zalduondon ere ikusten dut, 2005ean, Lazarragaren eskuizkribuaren aitzakian egin zen ekitaldi batean. Hantxe zen Pello Zubiria, *Euskaldunon Egunkaria* itxita ordurako, eta hura Kaxildori aurkeztu nion. Itxiera eta gainerako guztia asko sentitu zuela Zubiriari esan arte ez zen lasai gelditu. Orain, berriz, *Administrazioa Euskaraz* jaso eta Kaxildoren artikulurik ez. Nire lagun batek –Tolosako euskaltegia irakasle da– esan zidan oso gustura irakurtzen zituela Kaxildoren artikulua. Orain haren artikulurik ez dugu aldizkarian. Hutsunea, alegia». (Maite Imaz)

zatekeen. Marrazkiak ere baliatzen nituen tarteka. Eta holaxe. Haien buru nintzen, nahi bada, baina, batez ere, lagunak nituen, adiskide. Eta ez dakit zenbat aldiz esan dudana...

Oso metodikoa zinen. Agenda baliatzen zenuen, bateko Santa Eulalia eta besteko Santa Ines, eta oharrez betetzen omen zenuen delako agenda. Azkenerrako, agenda-bilduma ere egin zenuela.

Ez zuten-eta atertzen. Erraz hitz egiten zuten. Badakizu, gurean gai errepikakorra da eguraldia, eta hantxe hasiko zen bata: «Iaz, garai honetan elurra egin zuen...». Hartzen nuen nire agenda, aurreko urtekoa, eta hantxe erantzuna zuzen ageri: «Ez, bada! Iaz, gaurko egunez, hileko eguzkirik ederrena izan genuen!». Erraz hitz egiten du jendeak, eta indarraren arrazoiak baino nahiago izan nuen nik beti arrazoiaren indarra. Eta, han, agendak zeukan arrazoi, ez inoren memoria flakoak.

Kontalari handia zinen, kontalaria lagunartean, eta kontalaria *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian ere. Jubilatuta ere, ez zenion kolaborazioari utzi.

Batak, kontalaria nintzela esango dizu. Besteak, etorri handikoa... Edortak esango dizu berba errazekoa nintzela, aita eta adiskide ninduela. Edorta! Bazeneki! Mendian ibili zale ginen, Ezkerraldeko mendiak-eta ibiltzen genituen. Mendi horien edertasuna-eta! Edorta mendian denero, berarekin noa ni, gero! Zenbat aldiz hasi ote nintzaion: «Zera bat kontatuko dizut, baina motzean, e!, motzean». Eta hantxe edukitzen nuen laguna, niri aditzen, ni berba eta berba! Elizako kantuen edertasunaz-eta. *Agur, Jesusen ama*, adibidez. Ez al da kantu ederra? Nire hileta-egunean ere aditu zuen Edortak, eta haren hozkia! *Agur, Jesusen ama, birjina maitea, agur, itsasoko izar dizdiratzailea. Agur, zeruko eguzki...*

TXINTXORROT

«Badut damua, jubilatuta zenetik [2008] gutxitan ikusi bainuen Kaxildo. Hamahiru urte horietan zenbat aldiz pentsatu ote dudan egunen batean harekin elkartu behar nuela, bazkaria egin... baina bizimodua bete da. 'Etorriko da eguna', pentsatzen nuen, baina eguna ez zen etorri. Buru ona zuen oso, gogoan atxikitzen zituen oroitzapenak, eta ederra izango zatekeen berarekin egotea. Gogoan dut gure seme nagusiak, Jon eta Peru, haurrak zirela –duela 25 urteko kontuak–, ezagutu zituela, noizbait, mendian. Gogoan hartu zituen haien izenak, eta ipuinak kontatzen zizkidan, nik umeei kontatzeko. Txintxorrotaren istorioa, adibidez. Seme nagusiak gogoratzen dira ipuinaz, oraindik, eta 25 urte ere badituzte». (Manu Arrasate)



Ondo da, Kaxildo, kantu ederra da, bai, baina besterik esan nahi nizuke: lankideak bildu zaizkizu ondora, eta, zuk, berriz, laster ekin diozu, lankideak gabe, adiskide eta lagunaz.

Mundua inoiz ez da izan lana eta lana. «Bizitza soziala» esaten da orain, ezta? Eta niri ere horixe gustatzen zitzaidan, edo nahi izaten nuen: IZOko lankideekin mendira joatea, Laredora antxoak jatera, Aulestiko edota Portugaleteko lagunak inoiz gure artera biltzea... Portugaleteko lagunak ezagutu beharko zenituzkeen! Palermo bat-eta! Gu geure euskal burbuilan bizi gaituzu eta, haiek, aldiz, bestelako munduan bizi dituzu! «*Kaxildo, cómo tocas el tikstu!*» (Kaxildo, ondo jotzen duzu txistua, gero!) Hortik atera kontuak zer harreman zuten haiek euskararekin. Garai batean, erraza zen lagunartea biltzea, mendira joatea, hamaiketako egitea, hara edo hona joan eta lankideok denok batera bazkaltzea. Giza zirriboroon harremanak zaindu beharrekoak dira beti: zaindu egin behar ziren, eta zaindu egin beharko dira, beti. Besterik da gaur egun bestelako gizarte eredu batera goazela, nork bere estutasuna duela gogoan beti edo gehienez, harremanak hotzagoak direla, ordenagailu

bidezko lotura dela nagusi. IVAPen, garai batean, taldea txikiagoa zen, eta kohesionatuagoa nahitaez.

Urkiolan, baba-jana. Udako ordutegia-ekin hasten zinetenean, sardina-jana. Gorbeiaiko interpretazio-zentrorra bisita, eta bazkaria. Santomasetan, txistor-jana... giza zirriborroaren harremanak lantzen zu beti.

Hil arte bizi! Ez da besterik. Orain pentsaezina litzateke, baina jakin dezazun: Salvador Azpiazu kaleko bulegoan ginenean, Gasteizen, balkoi txiki bat genuen, eta barbakoa etxetik eraman eta txistorra hantxe erreta nago ni santomasetan. Gero, IZO Adriano VI.era aldatu zenean, balkoirik ez, eta barruan prestatu nuen txistorra, baina haren usaina bloke osora zabaldutako zen, eta hori ere ez zen modua. Harrezkero, etxean prestatu, eta eramaten hasi nintzen. Beste behin, marmitakoa egin nuen, baina ez nuen asmatu, zeren marmitakoa goxoa bai, baina haren usaina ere txistorrarena bezalaxe zabaldutako zen, eta horrela ezin zen.

Zu zara, zu, gero, Kaxildo!

Bai, bada! Joanak joan, pozik handiena dut Manuk nire herentziari segitu dio-

la, ditzosozko birus hau azaldu zen arte, behintzat. Batek jakin hamaiketakoak-eta egiteko ohitura berreskuratzeko ote duten. Baietz espero dut, nik zeruko jardinetik lagunduko diot Manuri. Lantalea franko aldatuta ere, ohiturari eutsi zion. Hara!, gu 16 lagun izan ginen hasieran. Gaur egun, 48 ere badira, IZO eta Terminologia batuta, telelana ere nagusitzen ari da, lehen baino sakabana-tuagoa dago jendea. Nik, Getaria-ko kanposantuan ere, gogoan ditut garai haiek, zer polit, zer eder... Ahal duzuela, eutsi horri!

Talde-sortzailea zinela dio Edortak, zu zinen tokian taldea sortu ohi zenuela...


Taldea sortu ezik, harremanik ere ez da sendotuko, eta igarriko da. Nire garaian, lankideak kohesionatzea nuen helburu. Ez dakit ageriko helburua zen ere, baina horretara gindoazen. Taldea. Nire obsesioa zen ere ez dakit, baina lagunak behar nituen, lagunak Portugaleten, Bilbon, Aulestin, Getarian..., batzuekin eta besteekin basoerdi batzuk edan eta hitz egin. Badakit Maite gogoratuko dela: orain dela bospasei urte, Getaria-ko festetara gonbidatu nuen, marmitako-txapelketara. Hantxe bildu zitzaizkigun gure



Kaxildo IVAPen



Kaxildo Toloñon



Kaxildo Getarian

arriba Lurdes, Aulestiko lagunak eta beste. Hainbat jende, hainbat lagun! Berdin Bakion, hango marmitako-txapelketen berri zuzena dute Asierrek eta Sebas Agirrek.

Saltsa guztietako burruntzalia zinela dio Edortak, hamalau eginkizun ere bazenituela, lantokian bezainbat lanetik kanpora.

Saltsa guztietako burruntzalia ni? Edorta bera ez zebilen aparte! 1981ean ezagutu nuen, Portugaleteko Euskal Herrian Euskaraz taldea sortu zenean. Hiru lagun ginen, Edorta, Kepa Altonaga eta hirurok. Egia da pilota elkarte sortu genuela Portugaleten, pilotari txikiak neuk entrenatzen nituela, eta, bestalde, Mendebalde Kultura Alkarteko eta EIZIEko kide ere banintzela, baina, gainerakoan ni neure galgan ibiltzen nintzen honetan eta hartan, herri-kiroletan –hori bai, ikaragarri gustatzen zitzaizkidan estropadak–, sukaldaritzan, *Administrazioa Euskaraz* aldizkarian idazten eta beste hainbat saltsatan!



Kaxildo afarian

Maitek esanda jakin dudanez, bazenuen kezka, jubilatzean aspertuko ote zinen, alegia.

Bai, egia da, baina ez nintzen aspertu. Hamaika zeregin izan nuen beti eta, azkenean, bilobak ere izan nituen, eta hura bizipoza eman zidatena. Eta Portugaleten bizi nintzela, Bilbora joan nintzen bizitzera, semearengandik hurrago egon, eta bilobak zaintzen Ekaitzi laguntzeko. Hantxe egin nituen azkeneko lau urteak.

Getariara ere joaten nintzen, anaia Joxe Mari zaintzera. Errutina bat osatu nuen, eta harixe lotu nintzaion, batean Bilbon, bestean Getarian. Eta, jakina, *Administrazioa Euskaraz* aldizkariko artikulua. Joan den irailean ere, hortxe izango zen Xabier Amatria nire lana jaso zain, baina ez nintzen gauza. Ez dakit nola moldatuko zen Xabier [Amatria], baina badakit onik aterako zela ataka gaitzetik.

Erretiratu zinen, baina ez zinen IVAPetik inoiz zeharo aldendu.

Manuri [Arrasate] aditu diot esaten jendearekiko hitzarmena egina nuela nik neure barruan. Gehixeago ala gutxixeago, baina harremanetan iraun, behintzat. Nola ez nintzen, bada, gabonetan-eta, IVAPera joango? IVAP utzita ere, ez nuen lagunik ahaztu. Jendearen artean disfrutatzen nuen gehiena, benetako jendearen artean; IVAPekoak bezalakoen artean, alegia. Eta ez

naiz zurikerian ari! Aspaldi joan zitzaidan zurikerian ibiltzeko garaia. Gehiago esango nuke, zurikeria handiagoa da zu egiten ari zarena, Getariako hilerrira IVAPeko lagunaren eskutik etorri eta niri hainbat kontu esanaraztea! Kar, kar... Tira, txantxetan ari naiz. Etorri, nahi duzuenean. Hementxe izango nauzue. Edo Xenpelarren modura-edo esango dizuet: «Egin zaidazue bisita». Paraje zoragarrian nago, mahastiz inguratua! ■

TOTAL MAITAGARRIA

«Kaxildo apirilekoa zen, eta urtero egiten genion deia, zoriontzeko. Ni, berriz, maiatzekoa naiz, eta hark, ordainetan, deitu egiten zigun. Aurten, deirik ez genuen jaso. Etxean esan genuen: ‘Aurten ez du deitu Kaxildok’. Ez genion inportantziarik eman, baina ez zuela deitu jabetu ginen. ‘Ene, oraingoan Kaxildo deskuidatu egin da’. Hurrena, Manuren [Arrasate] bidez jakin genuen Kaxildo hil zena. Ona zen Kaxildo, pertsona ona, eta total maitagarria.

»Orain hamaika urte gaixotasun bat izan nuen, eta hogeita hemezortziren bat egun egin nituen ingesatuta Gurutzetako ospitalean, uztailaren 3tik abuztuaren 10era. Kaxildo artean Portugaleten bizi zen, eta bisitan etortzen zitzaidan egunik gehienetan, arratsalde. Oinez etortzen zen, eta metroan joaten, edo alderantziz. Opari ekarri zidan Gilleramo Amutxastegi pilotariaren liburua: *Neuk*. Bete-betean asmatu zuen, askotan ibiltzen genituen-eta pilota kontuak.

»Sarri egiten genuen berba telefonoz, eta beti hitz egin nahi izaten zuen nire andrearekin. Eta beti esango zion: ‘Zu, Gema, sukaldari ona zara!’. Behin, gure etxean afaldu genuen, eta handik-edo aterako zuen kontu hori, edo Jaurilaritzan egiten genituen tuper-bazkarietatik. Baina ‘Zu, Gema, sukaldari ona zara!’ esan gabe ez zuen telefona eskegitzen. Gure alabek ere ezagutzen zuten, eta estimu handia zioten». (Antton Burgoa)

KAXILDO IKUSTEN DUT

«Kaxildoren bitartez ezagutu nuen Ezkerraldea. Edortaren konpainian Ganekogortatik barrena joaten zen Bilbora, eta nirekin, berriz, Retuertora, Argalariotik zehar, eta handik Trapagaranera. Erlora ere joan ginen, Azpeitian gora, eta Aulestira ere bai, hango aldeko Santa Eufemiara-eta. Hain baitzen ibiltaria, erretiratu zenean egonalditxoan oparitu genion Zugarramurdin. Berarekin joateko esan zidan, eta hantxe ibili ginen Baztanen, bata eta bestea ikusiz.

»Extremadurara ere heldu ginen behin, eta han ere jendea ezagutu genuen. Tartean, Euskal Herrian lan egindakoren bat: ‘Han, eguerdian poteak eta arratsaldean txikitoak hartzen ziren’, esan zuen hemen lanean ibilitakoak. Eta Kaxildok: ‘Hori duk zorakeria! Potea eta txikitoa gauza bera dituk!’. Huraxe izan zuten eztabaida. ‘Hik esan behar al didak niri?’, hark. Eta Kaxildok: ‘Bai, neuk esan beharko diat!’. Askotan kontaktzen zuen hori Kaxildok.

»Kaxildo zen pertsona bat beti eskura edukiko zenuena. Ezer behar bazenuen, hantxe Kaxildo. Oraindik ere, Bilboko zenbait kaletan nabilela, Kaxildo ikusten dudala iruditzen zait». (Asier Madariaga)